

## ELKARBIZITZA PLANA

### MARKO TEORIKOA

#### ▪ **METODOLOGIA PARTE HARTZAILEAK**

Ikastetxeko helburu nagusietako bat ikasketa kooperatiboa bultzatzea da, hau da IKKI proiektua hain zuzen ere. Metodologia honen bitartez, ikasleen arteko elkarreagina bultzatu nahi dugu eta elkarren artean laguntzea, denen lorpenak baloratzuz, ikasle bakoitzaren oinarria kontutan izanik, dituen erreferentzia eta ezagutzetatik hasita, prozesua ebaluatuko dugu, eta hori bera, ikasle bakoitzak eginiko bidea izango da arrakasta. Metodologia honekin, irakasleak bitartekari eta laguntzaile funtzioak betetzen ditu. Ikasleak bere ikaste-prozesua aktiboki eraiki dezan laguntzen du, herritar bezala kalitatezko oinarrizko hezkuntza lortzeko helburuarekin. Honen bitartez ere, autonomia gehiago ematen zaio ikasleari eta prozesuaren eragile nagusi bihurtzen da.

#### ▪ **IKASLEEN ARTEKO ELKAR EZAGUTZA BULTZATZEKO JARDUERAK.**

- **Jantokia:** Jantokian, adin desberdinetako ikasleak nahasten dira bazkaltzeko garaian. Giroa lasaiagoa da, zarata gutxitu da, ikasle zaharrenek txikiagoekiko begirunea azaltzen dute eta elkar ezagutzak bizikidetzara giroa hobetzen du.

- **Ikasturte hasierako jolasak:** Ikasturte berriaren aurrean, ikasleen harrerari arreta berezia jartzen diogu. Lehenengo egunean irakasleek, tutoreek eta espezialistek egiten diete harrera, eta taldekide eta mahaikideekin jaitxo bat prestatzen da.

Bigarren egunean jolasak antolatzen dira. 20 talde osatzen dira adin desberdinetako ikasleak nahastuz, LH1etik LH6ra. Jolasgune desberdinak antolatzen dira. Jolasaren bitartez guztien arteko interakzioa lortzen da. Haur Hezkuntzan ere jolasak antolatzen dira, adin desberdinetako taldeak nahastuz.

- **Aiarri Olinpiadak:** Ikasturte hasieran sortutako talde hauek urte guztian zehar mantentzen dira. Taldekideek izena jartzen diote taldeari eta hiruhilekoan bitan jolas desberdinak antolatzen dira. Egun horietan jolas-garaia aurreratzen da eta 11:00etan bakoitza bere eremura joaten da, berehala jolasean hasteko. 5 jolasez osatutako errotazioa egiten da, 12:30etarako bukatuz. Taldeen arteko jolas-egutegia ikasturte hasieran finkatzen da.

- **Inauterietako tailerrak:** Inauterietako ostegun arratsaldean, mozerro tailerrak antolatzen dira, 5 eta 12 urte bitarte ikasleentzat. Ikasle zaharrenek txikienen ardura hartzen dute: gelatik jaso, mozerroak egiten lagundu, makilatu..., eta amaitutakoan gelara itzultzen lagundu.

- **Liburuaren Eguna:** Urtero antolatzen den jarduera honetan, eskolako ikasle guztiek parte hartzen dute, 2 urteko ikasleetatik hasi eta 6. mailara bitarte. Zaharrenek txikienen ardura hartzen dute ekintza honetan ere. Gurasoek ere parte hartzen dute jarduera honetan, kontalari gisa.

- **Ibilaldi neurtua:** Ikasturteari amaiera emateko, azken eskola-egunean Ibilaldi neurtua antolatzen da. Olinpiadetako jolas-taldeei HH5eko ikasleak gehitzen zaizkie eta herrian zehar ibilalditxoak egiten dute. Ikasle zaharrenek ardura handiz hartzen dute txikienen zaintza eta txikienek hauen babesak sentitzen dute. Haur Hezkuntzako gainontzeko ikasleek ibilbide txikiagoak egiten dute. Amaitutakoan denontzat edaria prest izaten da, freskatzeko.

#### ▪ **ESKOLA INKLUSIBOA BATZORDEA, IKASLEEN FOROA ETA BATZORDE MISTOA.**

- **Eskola inklusiboa batzordea:** Batzorde honen osaketa: zuzendaria, ikasketa-burua eta aholkulariaz gain, ikastetxeko edozein irakasle parte har dezake. Ziklo bakoitzeko irakasle bana egotea hobesten da. Ikasketa-burua da batzorde-burua. Inklusioaren planteamendua alderdi desberdinetatik jorratuko du, ikastetxeko proiektu desberdinak bilduz.

- **Batzorde mistoa.** Eskolako egunerokotasunean sortzen diren gaien inguruan, denon ikuspuntua bildu eta adostasunetara iristea du helburu. ELIZALDE HLHIko ikasle, guraso, irakasle eta langile ez irakasleak Eskola Inklusiboa batzordeak antolatutako foro eta batzordeetan parte har dezakete.

- **Ikasleen foroa.** Foro honetan, gela bakoitzeko bi ikasle parte hartzen dute, HH5etik LH6arte. Batzorde Mistoa aurkezten diren proposamenak eta iritziak adosteko edo eskolako beste batzordeei proposamenak egiteko. Ikasturte amaieran ikasturtea nola joan den aztertzen dute eta hobetzeko proposamenak egiten dituzte.

#### ▪ **IRAKASLEEN FORMAKUNTZA PLANA**

Ikasketa-burua, aholkularia eta hainbat irakasle gatazka ebazteko estrategien inguruko prestakuntza jasotzen ari dira. Urtero, bizikidetzak gaiarekin lotura duen prestakuntza jasotzen du ikasketa-buruak. Ondoren, ikastetxean estrategia berriak martxan jartzen dira.

#### ▪ **HERRIKO GIZARTE HEZKUNTZA KONTSEILUA:**

Ikastetxea Herriko Gizarte Hezkuntza Kontseiluaren partaidea da. Bertan, herri mailan, elkarte desberdinekin koordinatuz bizikidetzak, parekidetasuna, osasuna, bizi-duintasuna eta lankidetzaren inguruan lan egiten dugu. Zuzendariak parte hartzen du.

## ▪ **BARNE ARUDIA.**

Barne araudi garbi eta zehatz bat finkatzea, guztion artean adostutakoa eta ikas komunitate osoari ezagutaraztea.

## ▪ **TUTORETZA PLANA**

### HAUR HEZKUNTZA

Helburuak:

- Bizikidetzarako oinarrizko arauak finkatu.
- Sentimenduak eta emozioak modu egokian adierazi eta besteenak identifikatu eta errespetatu.
- Arrisku-egoerak identifikatu.
- Bere ongizatea bermatuko duten garbitasun ohiturak bereganatu.

Ekintzak:

- Arauak taldeak zehaztu eta adostu. Idatziz jaso. Arduradunak arauak irakurri (bere modura) eta gogorarazi. Ez betetzearen ondorengo neurri konpontzaileak edo konponbidea ikasleekin landu, beraien proposamenak bildu eta adostu.
- Emozioak eta gertatutakoa hitzez adierazi, adinaren arabera irakaslearen laguntzaz. Besteen egoeraz irakasleak ohartarazi. Gertatutakoaz eta sentitutakoari buruz hausnartzeko tartea eta espazioa eskaini. Adinaren arabera, pentsatutakoari buruz hitz egin.
- Elkarrizketa bidez arrazoitu eta argudiatu arriskua non dagoen eta ondorioak aurreratu.
- Eskuak garbitu, jan aurretik eta ondoren. Esfinterren kontrola, hasieran irakaslearen laguntzaz.

### LEHEN HEZKUNTZA 1. ZIKLOA

Helburuak:

- Pertsona landu, eskola eta gizarte-mailan: autonomia, ardurak eta erantzukizunak, sentimenduak, emozioak, auto-ezagutza eta besteei laguntza, norbere zaintza eta osasuna, familiarekiko lotura.

*Ekintzak:*

Material hauek proposatzen dituzten ekintzak garatuko ditugu:

- Tutoretza Lehen Hezkuntzan – laguntzeko eskuliburua.
- Lagunekin baratzean.

### LEHEN HEZKUNTZA 2. ZIKLOA

*Helburuak:*

- Ikaslearen garapen pertsonala: autonomia, arreta, emozio eta sentimenduen kudeaketa landu.
- Ikaslearen garapen soziala: elkarbizitza-arauak, ardura, errespetuzko jarrera, gatazken konponketa, talde-kohesioa, talde-lana eta berdintasuna landu.
- Ikaslearen lan-ohiturak: agendaren kudeaketa, antolaketa eta autonomia pertsonala.

*Ekintzak:*

- Eskola-agenda. Eguneroko antolaketan txertatuta dago honen inguruko lana: oharrak, etxerako lanak... Hasieran denon artean betetzen da eta pixkanaka ikasle bakoitzak ere kabuz betetzea da helburua.

Material hauek proposatzen dituzten ekintzak garatuko ditugu:

- Tutoretza lehen hezkuntzan – laguntzeko eskuliburua.
- ¿Puedo ayudar? Berdintasunerako eta hezkidetzarako materialak.
- Adimena garatzeko fitxak.
- Oinarrizko konpetentziak lantzeko koadernoak: ikusmen-jokoak, orientazio-jokoak eta logika-jokoak.
- Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 8 a 10 años.

### LEHEN HEZKUNTZA 3. ZIKLOA

*Helburuak:*

- Eskolan egiten diren gauzen kontzientzia hartu.
- Gelako arauak landu eta ondorioak, neurri zuzentzaileak eta konpontzeko bideak zehaztu.
- Haien arteko gatazkak bideratu.
- Lan-ohiturak landu: agenda, lanaren antolaketa, garbitasuna eta txukuntasuna.

*Ekintzak:*

- Elkarrizketak eta eztabaidak. Akta batean jasotzen dira eta hurrengo saioan landu egiten da.
- Rol playing.
- Eskola-agenda landu.
- Astero denon artean, astean zehar gertatu zaien zerbait positiboa azaldu. Hausnarketa egin.
- Hezkuntza etapa berrian izango dituzten erronketarako prestatu, gurasoekin bilera egin eta DBHkoekin harremana mantendu.

Material hauek proposatzen dituzten hainbat ekintza ere garatuko ditugu:

- Tutoretza lehen hezkuntzan – laguntzeko eskuliburua.
- Programa de intervención para aumentar la atención y la flexibilidad.